

BERTSOLARIEN PIKOA (I)

Bi gauza da bertsolaria: musikatu ta esanlari. Bertsotan ari danean, kantuz ari oi da ta buruak ematen diona kantu orren ariz azaltzen.

Ortarako iru gai beintzat bear ditu: belarri ona, abots ez exkaxa ta soiñu-kontzientzia.

Entzumenez artu genezake soiñua, baita igi-neurria ta gogala —burutapena— zaindu ta egiztatu ere. Abotsak sor-azten digu soiñua. Soiñu-kontzientzia, ordez, geure izate ta gogoaren gaitasuna duzu. Abotsik, ez jo-tresnarik gabe ere, berak adierazten digu, soiñuak alkarrekin duen ar-emanari esker, edozein melodi naiz eres-kidek barnean duen zera. Sarri erabilili-ta oituriko abots-experientziak lagunduta lortu ta geunagatzen dugu soiñu-kontzientzi ori.

Badu zer ikusirik onekin dantzak ere. Ritmua, igiera bear da dantzatzean. Gorputz osoaren igieraz osatu ditzakegu ritmuak. Emen ere kontzientzia bear da, igiera-kontzientzia,aldiaren zatiak eta jarraikoak, beren indar, xixtu, abiada ta bizitasun osoan, aitzen eman al izateko. Au ere gorputz-iñarkun etenbakoiz lortzen da.

Gaur-eguneko musikak izango ditu bere akatsak, baiña ritmurik ez duenik ez du inork esango, gezurra lioke ta. So jaisaloí batean, ezte-ondoko musika otsean naiz erri-plazan; gure

ume ta gazteak musika asi-ala asiko zaizkizu oiñak, bernak mobitu ta irra-naiean. Aspaldikoa da noski, gure bizitzari estu-estu lotua, igiera ta ritmua.

Bertsolariak, a otik ortzera bertso-jario ari dalarik, ritmu bat, igiera bat darabil. Nun, baiña? Kantu-doiñuan nunbait.



Ildo orretan irauli ta ustui oi ditu koplariak goi-doaiez argiturik buruak ematen dizkion itzak; ez au gero jakiñez, xoral-diz eta uste gaberik bezela baiño. Ez dizkigu egundo bere bertsoen silabak bat-banatzen; ez du orren ardurarik; ezta mingorrik, azenturik duen ala ez ere, ez du orren axolik: melodiak darama bide seguruz. Ori-xegatik, silaba bakoitzak ez du,

bertsolarien doiñurik gelenetan beintzat, "nota" bat-bakarra baizik: "nota" bakoitzak silaba bat eta kitu. Bear baiño puntu geiago sartu ezkeru, "porro!" egin oi digu bertsolariak.

Orrezaz gaiñera, beste zerbait ere arretaz zaindu oi du bertsolariak, utsik egin gabe ta jakiñez zaindu ere: azken-oskidez, rimaz arduratzen da.

Naitaezkoa du ori. Ez gero edozelango azken-amaitzea ere; aberatsa, loratsua nai izaten du geienik. Bai ideia, pentsamentuz bai rimaz bertsoa izan dedilla egoki, zorrotz eta jakintsu bukatua. Ortan datza, batez ere, bertsolariaren trebetasuna. Ortan lan egin oi dute, olerkari onaren pareko. Bertsolari batzuk, ikusiak ditut nik, azken-oskide arraru ta bakanez paper osoak zirriborrotuta ziskuan erabilili oi dituztenak, lan bitartean ere eurok gogoratu ta auznartzeko asmoz. Gisa ortan aberasten dute beren bertso-sailla. Bederatzi puntuko estrofak, adibidez, ez dira errezenak, eta alan ere gaur edozein bertsolari gaida olako bertsoak.

A. ONAINDIA



BERTSOLARIEN PIKOA (II)

Rima egikeran beste zerbait ere arduraz gorde oi dute. Zer ote? Ritmuak eskatzen duen zerbait, itzan barruan duen igierak eskatutakoa: puntuaren amaikerak ez du nai itz berdiñik.

Geiago oindio: M. Lekuona'k dionez, estrofa edo aapaldi bukaeran ezin leike ber-esan, ez erabilli itz bat-bera, ezta estrofa barruan ere. Bein erabilli dan itza ezin dezakegu berriz erabilli, ez bukaeran ez estrofa barruan. "Poto" egitea litzateke ori. Bertsolariak badauzka, ba, bere lege estu ta ertsiak, bere trebetasunari esker, ederki bete oi ditunak.

Ritmuaren igierari gagozkio-la, ez bedi inoiz ere bizlegia izan; eman emeki doiñuari, baiña ez astiroegi: musikan *andante* esaten zaiona dute eredu. Oiengan ez duzu aurkituko gaurko kantarien garraxirik, ez jauzi bizirik, ez ao-biurtze itsusirik. Iturritik ura bezela, berez datorrena da guztia, itz, ritmu ta amaia aberats.

Ritmu ori, gaiñera, euskaldunak ez du artu alboko erri-musikatik, bere arimatik sortua du. Guri ez digu ezer esaten ego-aldeko musikak, andaluziarren ijito-kantak, esate baterako; ezta, bear bada, aiei gureak ere. Gu-

retzaz aiek gogorregiak, ozene-giak dira; gureak aientzat, ba' liteke, gozo ta belaskaegiak izatea. Erri bakoitzak du bere arima; eta nare, ezti ta jabal duzugu gure musikaren igiera, bertsolariena batez ere.

Ez duzu alan eta guzti ere ain estua. Bertsolariak badu askatasunik, bai ritmuan eta bai melodian; kantu gregorianuan bezela edo. Onek, ordea, ari izur bezela jarten ditu musikalariak.

Auxe da izan ere gure bertsolarien jatortasuna, jator izatea; ez du, ez, inoregandik artu, bere-berea du zalantza gabetanik. Guztiz aske ta ausart zaigu sarritan. Askatasun eta ausardi auek nabari ipinteko, musikalariak —R. M. Azkue ta Aita Donosti tarteko— zuberotarrak abestu oi duten au, jarri oi digute eredu bezela:

Oi xarmagarri, otol, entzün nezazü,
leihula jalki eta hunat so egidazu.

Urrunti hunat nüzü;

gaia ulhun düzü;

ebia ari düzü;


krudela ez-pa'zira, pletate har zazü:
borta idok adazü.

Letra onek duen melodia etzion Aita Donosti'ri errez izan idatziz aldatzea. Alkar izketa duzu neska bere etxeko leioan, eta maite-mindutako mu-

til gaztea kanpo aldetik leio azpian kantari.

Iru aldikotik laukora errez jauzi dagi kantariak: baita doiñu nausitik txikiera ere. Geienik ez da orrela bertsolarien jokabidea, baiña noizik-bein badituzte olako koxka, eta irulez jokatzeak.

A. ONAINDIA



Orra or euskal bertsolarien oroit-arria; gure metzetako errekek emeki landutako arriak, eta oierkari berak maiteki landu zituen itz zaarrek...